

EROSKI-K PROTOKOLO BAT AKTIBATU DU, BERE DENDAK BABESGUNE IZAN DAITEZEN GENERO INDARKERIAREN KASUETAN ETA LGTBI+ KOLEKTIBOENGANAKO ERASOETAN

- **EAEko, Nafarroako, Errioxako eta Kantabriako zentroek harrera eta lagun egiteko espazio bat eskainiko diete laguntza eskatzen dutenentzat**

Elorrio, 2026ko otsailaren 12a.- [EROSKI](#)k abian jarri du protokolo bat, beren dendak babesgune izan daitetzen. Helburua da harrera eta lagun egiteko espazio bat eskaintzea genero indarkeriaren arloko eta LGTBI+ kolektiboarenganako erasoak izanez gero. EAEn, Nafarroan, Errioxan eta Kantabrian ezarriko da ekimen hori, bai hipermerkatuetan, bai supermerkatuetan, bai plataforma logistikoetan eta bai bulego nagusietan.

Protokolo horren bitartez, EROSKIren dendak konfiantzazko espazio bihurtuko dira. Espaziotan, arriskuan sentitzen den edonork gune seguru bat aurkituko du, arreta hurbila eta laguntza jasoko ditu, betiere beste baliabide edo zerbitzu batzuetara jotzeko izan dezakeen borondatea errespetatuta.

Protokoloak zehatz-mehatz jasotzen du langileen jardunbidea: lasaitasuna, belarri enpatikoa, pertsonaren erabakienganako errespetua eta segurtasunaren lehentasun absolutua, bai biktimearenganako eta bai zentroko langileenganako. Dendek inola ere ez dituzte ordezkatzeko larrialdi zerbitzuak edo segurtasun indarrak, baizik eta babeserako eta laguntzarako aurreneko espazio bat izango dira.

Honela dio **Marta Carazok, EROSKIren Kudeaketa Sozialeko arduradunak**: *"EROSKIren dendak milaka lagun en eguneroko bizimoduaren parte dira; presente daude auzo eta herrietan. Dendak babesgune bihurtuta, era koherentean helduko diogu erantzukizun sozialaren gaiari, eta hurbiltasuna, belarria eta laguntza eskainiko dizkiegu une zaurgarri jakinetan beharrean egon daitezkeenei, betiere errespetuz jokatzeko eta haien autonomia inbaditu gabe".*

EROSKI-k konpromiso historikoa izan du berdintasunarekin, bizikidetzarekin eta pertsonenganako errespetuarekin, eta, hala, sendotu egingo du kontsumo kooperatiba gisa lurraldeetako errealitate sozialetik hurbil egoteko duen zeregina.

EROSKiri buruz

EROSKI banaketa talde liderretako bat da Espainia iparraldeko merkatuan —Galiziatik Balearretara—, %12,7ko merkatu kuotarekin; eta liderra da Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Galizian; lidergoan da halaber Balearretan ere. 2024aren amaieran, 1.502 saltoki zituen bere sare komertzialean: besteak beste, supermerkatuak, hipermerkatuak, cash & carry-ak eta online supermerkatuak, baita gasolindegia, kirol dendak eta elikagaien arlokoak ez diren beste negozio batzuk ere. Horretaz gainera, 6,4 milioi Bezero Bazkide baino gehiago ditu, eta 27.600 lagunek baino gehiago osatzen dute langile taldea; horietatik 9.000, berriz, bazkide eta jabe dira.